



mundukide


kooperazio kooperatiboa
cooperación cooperativa

2022

Txostena



www.mundukide.org



"Prestakuntzarekin, asistentzia teknikoarekin eta teknologiarekin laguntzen dugu, testuingurura eta tokiko beharretara egokituz"



Iñigo Albizuri Landazabal
Mundukide Fundazioko lehendakaria

Ikusten zen bazetorrela, baina askok ez zuten sinetsi nahi. Uste zuten European desagertuak zirela gerrak, ez zirela itzuliko. Eta gerra bat izanez gero, laburra izango zela nahitaez, inori ez baitzitzaion gerra luze bat interesatzen. Hala ere, batzuk bonbardaketak jasaten ari dira oraindik.

Zenbat sinesmen eta zenbat ziurtasun berrikusi beharko ditugu oraindik, abiada ikaragarri bizian mugitzen den eta dena hiperkonektatuta da-goen mundu honetan?

Inork ez zuen imajinatzen gerrak gure egunerokotasunean, gure erosketa saskian, gure ongizatean izango zuen inpaktua. Nolanahi ere, gertatzen zaigun guztia oso urrun geratzen da beste leku batzuetan (Afrikan, esaterako) jasaten duten inpaktutik; izan ere, Ukrainako ale faltari eskualdeko gabezia endemikoak gehitzen zaizkio: lehorte iraunkorrak, tokiko gatazka armatu

ez hain ezagunak baina era berean izugarriak, baliabideen eskasia eta ustelkeria.

Eta hola, gutxien dutenek gehien sufritzen dutenak dira berriro, eta krisi berri bakoitzarekin desigueltasunak handiagotzen jarraitzen du munduan, Stiglitz-en tesia berretsiz, hots: pobrezia aberastasuna baino gehiago heredatzen da. Izan ere, pobre jaiotzen bazara, oso litekeena da bizi guztian pobre izatea.

Batere lasaigarria ez den panorama horrekin, baina gizarte eraldaketa lankidetzaren bidez irits daitekeelakoan, Mundukiden 2022-25 aldirako Plan Estrategiko berria landu dugu. Lau urte hauetarako hartu dugun konpromisoa da gure lankidetzaren eragina handitzea, milaka pertsonari bizi aukera gehiago eta hobeak eskaintzen jarraitzeko. Badakigulako, eta sentitzen dugulako, inoiz baino beharrezkoagoa dela.

Horretarako, kultura kooperatiboan oinarritutako kudeaketa eredu baten aldeko apustua egiten dugu. Non pertsonak eta haien lana garapeneren motorra diren. Ez dugu arrainik banatzen; arrantzan irakasten dugu. Prestakuntzarekin, asistentzia teknikoarekin eta teknologiarekin laguntzen dugu, testuingurura eta


tokiko beharretara egokituz. Hori guztia gure lankide taldeari zor diogu, beren esperientziatik abiatuta komunitateekin zuzenean lan egiten baitute. Baina, era berean, boluntarioei, erakunde, GKEei, enpresei eta proiektu bakoitza diruz laguntzen duzuen zu bezalako pertsoneri zor dizuegu. Zuen laguntzarik gabe gure lana ezinezkoa izango litzateke.

Munduaren hegoaldeko herriei guk dauzkagun gauza asko falta zaizkie, baina bada haiek daukaten eta hemen falta dugun zerbait: "gure zaurgarritasunaren kontzientzia".

Orain arte kontzientziak pizten saiatzen ginen, beste pertsona batzuei laguntzeko, hemen arazo jakin batzuei inoiz aurre egin beharko ez genielako "ziurtasunetik". Gaur egun hobeto ulertzen dugu zer esan nahi duen azken aldian gehien errepikatu den hitz honek: ziurgabetasuna. Ez dugu ahaztu behar nondik gatozen, agian egunen batean hara itzuli beharko dugulako.

Horregatik, ezinbestekoa da herrien eta pertsonen arteko elkartasuna.

Aurrera, beti aurrera!



aurkibidea

Lehendakaritzaren gutuna	2
Misioa eta baliokak	4
Mundukide gara	5
Lankidetzaren Hego Amerikan	6
Ekvador Programa	7
Kolonia Programa	8
Brasil Programa	10
Lankidetzaren Afrikan	12
Etiopia Programa	13
Mozambique Programa	14
Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza	16
2022-2025 Plan Estrategikoa	17
Interkooperazioa	18
Datu ekonomikoak	20

MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Iturriotz 27 - 1º 20500 Arrasate-Mondragón • Tel. 943 772010
mundukide@mundukide.org • www.mundukide.org



CIF: G20673604 / D.L.: SS 405-2016 / Edizioa: Mundukide Fundazioa



Misioa



Gure zeregin nagusia lankidetzta programetan laguntzea da, bai eta proiektu solidarioak bultzatzea ere, tokiko pertsona eta erakundeekin lan eginez. Esperientziak, baliabideak eta jakintza partekatzen ditugu, inplikaturako aldean garapen autokudeatua eta integrala sustatzeko. Horretarako, lan kooperatiboaren munduaren elkartasuna aktibatzen dugu, Mundukideren balio eta printzipioek oinarrituta eta gidatuta.



Kooperatibak
Eskarmentua eta babes ekonomikoa



MU
Ikerketa, formakuntza eta praktikak



Bazkide eta ekarpen egileak
Babes ekonomikoa eta soziala



Boluntarioak
Lana eta eskarmentua



GKE
Elkarlana eta babes ekonomikoa



baliak

ELKARTASUN UNIBERTSALA

Mundukiden parte hartzen dugunon lanak elkartasuna du oinarri, bai ekonomia solidarioan garatutako beste esperientzia batzuekiko eta baita demokrazia sozialaren alde dihardutenekiko ere, betiere bake, justizia eta garapen helburuak partekatuz.

LANA

Lana ekintza eraldatzailerik gisa hartzen dugu, aldatetarako ekintza bezala, garapena lortzeko bide moduan. Mundukiden uste dugu lana bera ere balioa dela, eta kapitalaren gainetik dagoela.

GIZARTE ERALDAKETA

Mundukidekook pertsonak eta jendartea bidezkoagoak izatea nahi dugu, eta horretarako, norbere buruaren kudeaketa maila handiagoa izatea nahi dugu arlo guztietan, genero harremanak barne; ikuspuntu horretatik, autonomia funtsezkoa da, pertsona, elkarte eta herri bakoitzak erabaki dezan nolako jendartea izan nahi duen.



Mundukide gara



Enpresa eta kooperatiba laguntzaileak



Erakunde laguntzaileak




Orona




Erakunde laguntzaileak



Mundukide erakunde hauetako kidea da 2022 urte bukaeran:





Hego Amerika

Kontraparte egituratuen lana indartzeko laguntzen dugu, enpresa arloan, antolamendu arloan eta kooperatiba arloan, tokiko lidergoarekin eta Brasil, Kolonbia eta Ekuadorko herrietan gizartearen eraldatzeko bokazioarekin.

Pertsonen trebakuntza



Programako partaideak: **5.750**
Onuradunak: **28.628**
Inbertsioa: **1.315.014€**
Salmentak: **2.550.000€**

Kooperatibei aholkularitza



Enpresa sozial berriak bultzatzea



Interkooperazioa



Merkaturatzea



Ekvador



Yon Arruti Chasco
(Ibarra)



PROGRAMAREN HELBURUAK

Garapen sozioekonomiko iraunkorra bultzatzea eta Iparaldeko Mugako eta Amazoniako landa erakundeen arteko elkartegintza indartzea.

2022ko BALANTZEA

Toisan Korporazioarekin lankidetzan, lan handia egin da Cotacachi eskualdeko 10 ekintzailtzak indartzeko, kontuan harturik ekintzailtza horietako gehienak emakumeek gidatzen dituztela. Lanaren fokua ekoizpen, merkataritza, enpresa eta antolaketa arloetan gaitasunak handitzean jarri da. Parte hartze prozesu baten bidez, "Kutakachi" merkaturatze sarea ezartzea lortu da, salmentak handitzeko eta merkatu zabalago batean sarearen irismena hedatzeko. Wiñak kooperatibari etengabeko laguntza eskaini zaio gobernantza eta plangintza optimizatzen jarraitzeko. Hala ere, erronkaz beteriko garaia izan da elkarte kitxua honentzat, guayusa landarea merkaturatzeko zailtasunak direla eta.

2023ko HELBURUAK



- Baterako "Kutakachi" merkaturatze sarearen proposamena sendotzen eta eskuratzen laguntzea, Toisan Korporazioarekin eta Cotacachi-ko Kantonomendu Unitateko Batzarrarekin batera.
- Wiñak kooperatibari bere egitura eta gobernantza sendotzen laguntzea.
- Laguntzeko beste ekimen bat identifikatzea.



Cumanda Maldonado (Intag-eko Emakumeen Koordinakundeko ordezkarria eta CORPAISeko kidea):

"Mundukideek eskaintzen digun laguntzarik garrantzitsuen gure enpresak indartzeko motibazioan datza. "Antolatuago egoten laguntzen digu, beste ekintzailtza batzuekin lan egiten, plangintza eta berrikuntza handiangoarekin, INTAG markako kalitatezko produktuak eskuratu eta kantonamendutik kanpo saltzeko".



	ACTIVIDAD	INSTRUM.	RESULTADO	MUJERES
	Kooperatibei laguntzea	11 kooperatibari lagundu zaie	92 langile 908 bazkide	%61 emakumeak
	Kooperatibak kudeatzeko prestakuntza		55 pertsona prestatu dira	%42 emakumeak
	Parte hartzaileak		147 pertsona	%53 emakumeak
	Onuradunak		1.643 pertsona	%56 emakumeak



Kolonia

NEKAZARITZA SUSTAPENA PASTOKO INDIGENEN ARTEAN

PROGRAMAREN HELBURUAK





Elikagai subiranotasuna, familia ekonomia eta erresilientzia indartzea Pasto de Nariñoeko emakume indigenen kanpo ekitaldietan.

2022KO BALANTZEA

Pasto herriko emakume indigenekin nekazaritzan egiten ari den lana aurrera doa poliki-poliki. Nekazaritza ekologikoko erreferentziatzko pakete bat zehaztu da, produkzio pilotuekin, multiplikatzuz joateko. Nekazaritza ekologikoaren ideiak denbora behar du pasto emakumeen sorotan eta landetan gauzatzeko. Iraunkortasun lana da, denboran zehar mantendu behar dena, nekazaritza ohiturak aldatu arte. Gran Tescual lurraldeko gobernu indigena nabarmentzen ari da nekazaritza ekologikoko soluzioak inplementatzeagatik.

2023ko HELBURUAK

- Kolonbiako Hego-Mendebaldeko Birziklatzaileen Elkarte (ARSOC) sendotzen jarraitzea, Zerbitzua Emateko Enpresak (EPS) -zeinak tarifa kudeatuko baitute- eratzeko prozesua abiaraziz.
- Birziklatzaileen Elkarte Nazionalarekin (ANR) kudeaketa sozialeko laguntza plan bat zehaztea eta ezartzen hastea.

	JARDUERA	TRESNA	EMAITZA	EMAKUMEEK
	NEKAZARITZA PRODUKZIOARI ZUZENDUTAKO LAGUNTZA	Prestakuntza eta laguntza nekazaritza ekologikoan	233 pertsonak produkzio teknika berrieekin hasi dira	192 emakume (%82)
	PASTO EMAKUMEEK BALIABIDE EKONOMIKOAK ESKURATZEA	Kreditu funtsetarako laguntza eta kapitala	9 funts berri martxan 127 laguntzat	95 emakume (%75)
	PARTEHARTZAILEAK		233	%80
	ONURADUNAK		1.165	%60




Genith Quintiaquez
(Gran Tescualeko babesleku indigeneko gobernadore ohia):

Pastoen herrian, gure borroka lurraren berreskurapenaren, identitatearen eta parte hartze politikoaren inguruan zentratu dira, baina urriak dira autonomia ekonomikorantz izan ditugun esperientzia arrakastatsuak; hola, Mundukide ezagutu genuen. Mundukideren lankidetzeta filosofia oso berezia iruditzen zait, komunitateen jakintza propioa aintzat hartzen duelako eta lurraldeko dinamikak indartzen dituelako”.

PASTOKO BIRZIKLATZAILEEN KOLEKTIBOA



Asier Elorza Ugarte
(Nariño)



PROGRAMAREN HELBURUAK

Emakume birziklatzaileen erakundeak egituratzea, Kolonbiako Hego-Mendebaldean birziklatze zerbitzua emateko erakunde bakarra eratzeko.

2022KO BALANTZEA

Birziklatze lerroa Pastotik hedatu da, Hego-Mendebalde osoa hartuz. Mundukidek Cali eta Pastoko 6 elkarteri laguntzen die zuzenean administrazioan eta plangintzan. Pastoko Girasoles Elkarte (Nariño) indartu egin da; izan ere, funtzionamendu operatiboa eta soziala hobetzeko laguntza jaso du. Kolonbiako Hego-Mendebaldeko birziklatzaileen elkarteak (ARSOC), zerbitzua ematen duen enpresa bat den aldetik, haren garapena eta elkarte bazkideen garapena ahalbidetuko du. Bigarren mailako elkarte den ARSOCen bidez, emakume birziklatzaileen elkarten interkooperazioak oso aurrerapen ona egin du. Gainera, nazio mailan, antolaketa indartzeko bidea urratzen hasi da Birziklatzaileen Elkarte Nazionalarekin (ANR). Elkarte hori hasierako fasean dago oraindik, eta enpresa sozialari eta horri lotutako lanari buruzko prestakuntza bat eman da.

2023ko HELBURUAK


- Kolonbiako Hego-Mendebaldeko Birziklatzaileen Elkarte (ARSOC) sendotzen jarraitzea, Zerbitzua Emateko Enpresak (EPS) -zeinak tarifa kudeatuko baitute- eratzeko prozesua abiaraziz.
- Birziklatzaileen Elkarte Nazionalarekin (ANR) kudeaketa sozialeko laguntza plan bat zehaztea eta ezartzen hasia.

JARDUERA	TRESNA	EMAITZA	EMAKUM.
HAZKUNDE EKONOMIKOA	Zerbitzu emaile gisa sartzeko tarifa	192 pertsonak diru sarre-rak handitu dituzte	138
LAGUNTZA KUDEAKETAN	Hego-mendebaldeko 9 erakunde artikulatzea eta indartzea	363 pertsonari lagundu zaie	272
PRESTAKUNTZA	Antolaketa kulturari buruzko prestakuntza nazioko erakundeetako liderrentzat	206 pertsona prestatu dira	144
PARTEHARTZAILEAK		569	416
ONURADUNAK		1.815	%60




Nohra Padilla (Bogotako Birziklatzaile Elkarte (ARB) lehendakaria eta Birziklatzaileen Elkarte Nazionalako kidea):

“Gure sistema kooperatiboa indartzeko premia larria dugu, hori baita autoantolaketarako dugun aukera bakarra eta gure lanbidea behar bezala kudeatu ahal izateko, birziklatze mailak eta, jakina, bertako pertsonen bizi kalitatea hobetzea helburu”.



Brasil



LANKIDEAK

PROGRAMAREN HELBURUAK

Kanpalekuetan finkatutako MSTko familien garapen sozioekonomikoan laguntzea, erreferentziatzeko tokiko pertsonak kudeaketan trebatuz kooperatiben jarduna hobetzeko, hasi ekoizpenetik eta merkaturatzeraino.

2022KO BALANTZEA

2022an presentzialtasunera itzuli gara. Ezagutzen genuen normaltasunera itzuli gara baina, ikusi dugunez, online diren gauzek arrastoa utzi dute normaltasun horretan. Horren erakusgarri dira hegoaldeko hiru estatuetaoko kooperatibentzat aurreko aurreko eta online formatu mistoan egin den merkaturatze prestakuntza, edo estatu mailan formatu berean egin den Kooperatiben Kudeaketako prestakuntza. 2022an 13 kooperatiba, hegoaldeko estatuetaoko 7 kooperatiba eta Brasilgo ipar-ekialdeko 6 kooperatiba bertaratu dira berriro. Kooperatiba horietako 4100 bazkide baino gehiagori eman zaie laguntza. Gainera, MSTren merkaturatze sarea indartzen jarraitu da, "Armazens do Campo" delakoekin lan eginez. Espazio berriak ireki eta kudeatzeko laguntza eman da, eta gaur egun 24 dira espaziook. Lokal horien arteko interkooperazioa eta proiektuan parte hartzen duten pertsonen etengabeko prestakuntza bultzatu dira. 2022. urtea gobernu aldaketarekin amaitu da Brasilen, eta aldaketa horrek lan aukera berriak irekiko ditu datozen urteetan.



2023ko HELBURUAK

- Armazens do Campo direlakoak bultzatzeko eta indartzeko programa ezartzea, denda guztietako produkzio prozesuak sistematizatuz eta estandarizatuz, eta sare osorako ERP kudeaketa sistema bat ezarritz.
- Hegoaldeko 3 estatuetaoko kooperatibei zuzendutako laguntza lehenestea, eta laguntza taldeen bitartez sendotzea.
- MSTko kooperatiben merkaturatze estrategia indartzen laguntzea.
- Ceara estatuko bost nekazaritza industriak sendotzen jarraitzea.



Natxo De Vicente Casillas
(Rio Grande de Sul)
Copreci Koop.
bazkidea



Itziar Aranburu
(Ceará) Ulma Forja
Koop. bazkidea



Xabier Etxebarria Unzurrunzaga
(Ceará)



Julio Martínez Arija
(Sao Paulo-Minas Gerais)
Eroski Koop. bazkidea




Daniela Santos Ferreira (Cooperamuns kooperatibako industria arduraduna, Casa da Polpa):

“Mundukide Fundazioak eginkizun garrantzitsua bete du Cearako estatuan lurrik gabeko landa langileen mugimenduko kooperatiben antolaketa prozesuan. Finantza baliabideen hornikuntzaren eta laguntza teknikoaren bidez, interkooperazio sarea sortzen, intsumoak eskuratzen eta kooperatibako kideak enpresa kudeaketan, produkzioan eta merkaturatzean trebatzen lagundu du”.



	JARDUERA	TRESNA	EMAITZA	EMAKUMEAK
8 LAN DUNA ETA HAZKIDEGIA EKONOMIKOA	KOOPERATIBEI KUDEAKETAN LAGUNTzea	<ul style="list-style-type: none"> • 4 kooperante • Tokiko 3 lantalde • Boluntario 1 	<ul style="list-style-type: none"> • 4 estatutako 13 kooperatibari aholkularitza • 4112 bazkide 	<ul style="list-style-type: none"> • Kooperante 1 • Boluntaria 1 • 1727 bazkide
4 KALITATE ONIKO BEKUNTZA	PRES-TAKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> • 23 prestakuntza (Ceara, RGS, Minas Gerais, Sao Paulo...) 	<ul style="list-style-type: none"> • 361 pertsona formatu dira. 	<ul style="list-style-type: none"> • 164
5 GENERO-BERDINTASUNA	GENEROA	<ul style="list-style-type: none"> • Hegoaldeko emakumeen 2 ekintzaitzari aholku eman zaie • Berdintasun planei buruzko aholkularitza eman zaie ipar-ekialdeko kooperatibei 	<ul style="list-style-type: none"> • Emakumezko 2 koorditzaile eta teknikari 1 • 48 emakume ekintzaile 	<ul style="list-style-type: none"> • 63 formatutako emakume
17 ITUNAK, HELBURUAK LORTZEKO	LANKIDETZA	<ul style="list-style-type: none"> • Kooperatiben arteko lankidetzatza 	<ul style="list-style-type: none"> • Nazio mailako produkzio ekologikoa merkaturatzeari buruzko 1. topaketa logistikoa. • 2 produkzio kooperatiba. • 2. mailako 4 estatu kooperatiba eta zenbait instantzia MST nazionalarekin. • Armazens do Campo-ak kudeatzen dituen talde nazionala. • 132 pertsonari zuzeneko aholkularitza ematea. 	
12 EKOIZPEN ETA KONTSUMU ARDURATSUA	PRODUKZIO EKOLOGIKOA MERKATURATZEA	<ul style="list-style-type: none"> • Armazens do Campo-ei zuzendutako aholkularitza. • 6 denda irekitzea. • la berriak diren 18 denda indartzea. • AdC-ak kudeatzen dituen taldea indartzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • 148 pertsona. • 2.300.000€ fakturazioa. 	<ul style="list-style-type: none"> • 89
	PARTE HARTZAILEAK		<ul style="list-style-type: none"> • 4.801 	<ul style="list-style-type: none"> • 2.043
	ONURADUNAK		<ul style="list-style-type: none"> • 24.005 	<ul style="list-style-type: none"> • %49



Afrika

ESKUALDEKO GARAPEN SOZIOEKONOMIKOA

Pertsonen gaitasunak indartzen laguntzen dugu, beren garapen sozioekonomikoari eta beren komunitateei lagundu diezaieten, Mozambiken eta Etiopian, besteak beste.

Pertsonen trebakuntza



Programako partaideak: **14.900**

Onuradunak: **64.239**

Inbertsioa: **813.323€**

Salmentak: **1.603.000€**

Nekazaritzako garapena



Ureztatzea



Laguntza teknikoa



Hornidura eta merkaturatze sarea




Etiopia



Figirte Gizawu Alame (TIYOKo nekazaria)

“Alarguna naiz eta 4 seme-alaba dauzkat. SOS Sahel eta Mundukidekoen eskutik 10 oilasko jaso nituen, eta arratzak salduz, nire seme-alaben elikadura hobetu ahal izan dut, eta etxeko baratzea zabaldu.”



PROGRAMAREN HELBURUAK

Nekazarien familien ekoizpena eta produktibitatea hobetzea, horretarako trebatuz eta laboreak dibertsifikatuz, erabilera bikoitzeko laboreetan (bai elikadurarako, bai merkataritzarako) nekazaritza praktika egokiak ezarri, eta intsumoak eta nekazaritza kreditua eskuratzen lagunduz.

2022KO BALANTZEA



Urtea oso konplexua izan da Etiopian: larrialdi egoeraren deklarazioa, gerra, bileren debekua, kaleko protestak... Horrek guztiak asko zaildu du proiektua gauzatea, batez ere gaikuntzaren arloan, ez baita lortu aurreikusitako pertsona guztiengana iristea. Hala eta guztiz ere, sagarrondoak, ahukateak, baratze txikiak eta oilaskoak hazteko zenbait ekimen jarri ditugu abian, emakume nekazarien errenta hobetzea helburu.


2023KO HELBURUAK

- Proiektu pilotua amaitzea eta emaitzak ebaluatzea.
- Egungo programaren inpaktua dibertsifikatzen eta hobetzen lagunduko duten jardura, bazkide eta kokapen berriak identifikatzea.
- Mundukide Etiopian legeztatzekeo prozesua berraktibatzea eta amaitzea.




Jorge Lima (Arsi)

Jorge Lima: “Etiopia ikaragarritzko premiak dauzkan herrialdea da. Nekazariak krisi klimatiko larriak pairatzen dituzte, lurak eskuratzeko aukera oso mugatua da eta produkzioa merkaturatzeko sarea prekarioa. Mundukideren helburua lanerako espazio egokia aurkitzea da, nekazariengan eragin berezia izateko”.

	JARDUERA	TRESNA	EMAITZA	EMAKUM.
	Nekazaritzako eta abeltzaintzako produkzioa sustatzea	Laguntza teknikoa eta intsumoak eskuragarri izatea	241 emakume hasi dira erabilera bikoitzeko nekazaritza eta abeltzaintza produkzioan (elikadura eta errenta)	241
	Onuradunak	Elkarteak artikulatzea eta euren artean antolatzea	1205	%55



Mozambique



PROGRAMAREN HELBURUAK

Niassa eta Cabo Delgadoko nekazariekin batera, nekazaritzako lanaren errendimendua hobetzeko aukera berriak sortzea, eta, era berean, bizi baldintzak hobetzeko eta bizitza libreagoa izateko eskura dauden baliabide urriak areagotzea.


2022KO BALANTZEA

Azken 3 urteetan Cabo Delgado iparraldeko gatazka armatuak okerrera egin duenez, borroketatik ihesi gu lanean ari garen barrutietara iritsi diren pertsonen laguntzea izan da gure lana probintzia horretan. Niassako probintzian, nekazaritza ekoizpenak eta komertzializazioak zabalkunde handia izan du. 2021aren amaieran, hiru talde berri sortu ziren Mwembe, Sanga eta Ngauma barrutietako nekazariekin lankidetzan aritzeko; honenbestez, 2022aren amaieran, guztira 10 talde zeuden Niassan eta Cabo Delgadon. Gainera, programak metodologia berri bat inplementatu du, nekazarien auzo taldeetan oinarrituz, teknikak eta laboreak are gehiago zabaltzeko helburuarekin, eta azken urteetan irakasleekin egindako lanari esker, handia da praktikatzailen kopurua.



Elena Ramos de la Cruz

“Azken urte honetan esku hartu dugun herri eta herrixketan aurrerabidea egin dela sumatzen da. Batez ere, sesamo, soja eta barazkien produkzioari esker, familiek emaitza onak lortu dituzte. Programa hedatzen jarraitu nahi dugu, barruti berrietara iritsi eta nekazari familia gehiagori hobera egiteko aukerak eskaintzeko.”



GPS bidez neurtutako puntu beltzak programak azken urteetan lagundutako nekazari eremu guztiak dira

LANKIDEAK



Elena Ramos De la Cruz
(Niassa)



Fabrizio Graglia
(Niassa)







Javier Mendoza Cuartero
(Niassa)



Maria Olivera Martín
(Cabo Delgado)



	JARDUERA	TRESNA	EMAITZA	EMAKUMEAK
 <p>1 POBREZIA DESAGERTzea</p>	<p>LAGUNTZA TEKNIKOA ESKURATzea</p>	<p>Hainbat laboretan esperientzia duten 15 nekazari elkarterekin akordioak egin dira</p>	<p>99 nekazari / irakasle familiekin bizitzen lau hilabetez, lanean eta parte hartzen</p>	<p>18</p>
 <p>2 OSORIK EZ LEATza</p>	<p>NEKAZARITZAKO INTSUMOAK ESKURATzea</p>	<p>Nekazarien 440 auzo taldek, 99 irakaslek eta 35 landa merkatarik intsumoak eskuratzeari ahalbidetzen dute</p>	<p>40 tona hazi, fitosanitarioak eta 120.000 euroko balioa duten erremintak</p>	
 <p>8 LAN DUNA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA</p>	<p>INTSUMOAK MERKATURATzea</p>	<p>14.659 familiak (63.034 pertsona) 3.100 hektarea landatu dituzte gomendatutako teknikekin.</p>	<p>Parte hartu duten 14.659 familiek 1.600.000 euroko diru sarrera gehigarriak lortu dituzte uztaren salmentarekin.</p>	<p>Emakumeek ordezkatutako 3.631 familia, eta 32.778 emakume parte hartzen duten familietan</p>
 <p>10 DESBERDINTASUNAK MURRIZTzea</p>				

2023KO HELBURUAK

- 16.000 familiari laguntzea, teknika eta labore berriak 4.000 hektareatan aplikatuta uztaren salmentarekin 1.800.000 euroko diru sarrerak lor ditzaten.
- Nekazarien auzo taldeen metodologia hobetzen jarraitzea, tokiko oinarri sendoa lortu duten teknikak eta laboreak gehiago zabaltzen laguntzeko.
- Oraindik ere kanpoko laguntza behar den kasuetarako, emakume nekazari irakasleen metodologiarekin lanean jarraitzea.



Deolinda Julio:
(Nairubiko Nekazaria, Majune)

“Tipula produkzio on bat saldu izanak nire seme-alabak hobeto elikatzeko eta arrautzak saltzeko eta oiloak erosteko aukera eman dit. Mundukidek eskaintzen dizkigun tekniken hobekuntzari esker, nire seme-alaba guztiak eskolara bidali ahal izango ditut, nahi izanez gero”.





Paula Armesto
(MAIER Koop.)

“Brasilgo kooperatibetan hasierako sentimendu kooperatibista igarri dut: behar komun baten inguruan bazkidetzen diren pertsonak, gure ongizate kooperatiben errealitate eroaren aurrean”.

PROGRAMAREN HELBURUAK

Hausnarketa, ikaskuntza eta ekintza esperientziak ahalbidetzea, errealitate globalak eta tokiko berezitasunak hurbiltzeko, gizarte eraldaketa kritiko eta globala helburu, gizarte justuagoak, solidarioagoak eta autokudeatuagoak sortzeko.

2022KO BALANTZEA

Mondragon Unibertsitatea eta Arizmendi Ikastola hezkuntza eragile kooperatiboekin lanean jarraitu dugu, eta, gainera, Unibertsitatean Garapen Jasangarriaren Helbururuei buruzko prestakuntza sustatu da irakasleentzat. Bestalde, Euskal Herriko kooperatibek 2020an Brasilera egitekoa zuten bidaia egin dute azkenean, eta horrekin amaitutzat eman dugu Gehikoopen proiektu pilotua MAIER, COPRECI, FAGOR EDERLAN eta ARIZMENDI IKASTOLA kooperatibekin.

JARDUERA	TRESNA	EMAITZA	EMAKUMEAK
HEZKUNTZAKO ERAGILEKIN LAGUN EGITEA	Prestakuntza saioak MU GEP eta Enpresagintzarekin Arizmendi Ikastolarekin lankidetzan jardutea	386 MGoiEskolaP + 195 MU Enpresagintza	188 (%32)
PRESTATZAILE-ENTZAKO PRESTAKUNTZA	GJHei buruzko ikastaroa Unibertsitateko irakasleentzat	37	20 (%54)
PRESTAKUNTZA, GOGOETA ETA EKINTZA ARLOETAKO KOOPERATIBEI LAGUNTZEA	MAIER, COPRECI, FAGOR EDERLAN eta ARIZMENDI Ikastolako kideen bisita Brasilgo kooperatibetara	6	3
PARTE HARTZAILEAK		624 pertsona	211



2023KO HELBURUAK


- Gehikoop proiektuaren emaitzak ebaluatu eta prozesu berria definitzea.



Edu Abarrategi
(FAGOR EDERLAN S.Koop.)

“Mundukideren errealitatea tokian bertan ezagutzeak merezi du eta gogorazten digu gure bizimoduak ondorioak dituela beste pertsona batzuegan. Horregatik, premiazko neurriak hartu behar ditugu gauzak aldatzeko”.

2022-25 Plan estrategikoa



MAPA ESTRATEGIKOA


	Erronka	Lerro estrategikoak
1. ERRONKA	INTERKOOPERAZIOA ETA HAREN INPAKTUA ZABALTzea	1. LERROA - EMAITZAK HANDITzea INTERKOOPERAZIO PROGRAMETAN
		2. LERROA - HAZKUNDE PROZESUAK HOBETzea ETA PROGRAMEN INPAKTUA NEURTzea
2. ERRONKA	PERTSONA TALDEA ETA ERAKUNDEA INDARTzea	3. LERROA - PERTSONA TALDEA INDARTzea
		4. LERROA - ERAKUNDE KAUDIMENDUNA ETA ERAGINKORRA
3. ERRONKA	KOOPERATIBEKIKO LOTURA ETA NABARMENTASUNA HANDITzea	5. LERROA - NABARMENTASUNA HANDITzea
		6. LERROA - KOOPERATIBEK MUNDUKIDE PROIEKTUAREKIN DUTEN LOTURA SENDOTzea

2022. urtean, 2022-2025 aldirako Plan Estrategiko berria jarri genuen abian, zeinak ELKARTASUN UNIBERTSALETIK eta LANAREN bidez GIZARTE ERALDAKETAN eragina duen. Balio horiek epe luzerako lankidetzan gauzatzen dira, tokiko inpektua duten soluzio eraginkorrak sortzeko emaitzetara bideratuta.

Gure konpromisoa, datozen lau urteetarako, LANKIDETZAREN ERAGINA HANDITzea da, milaka pertsonari bizi aukera gehiago eta hobeak eskaintzen jarraitzeko.

Horretarako, pertsonen, aliantzen eta baliabideen esparruan ere lan egin beharko dugu, gure erakundea indartzeko.





Interkooperazioa



MUNDUKIDE SARIA

Iraia Irazusta eta Beñat Goiaren NAHAR izeneko film laburrak Mundukide saria irabazi du HUHEZINEMAren XVI. edizioan. Bi lagunen arteko elkarriketa baten bidez, eta Ekialde Hurbileko errefuxiatuen krisia ardatz hartuta, dokumentalak munduko desorekei buruz hausnartzera gonbidatzen gaitu. Horretarako, mahai baten inguruan bildutako protagonistek pertsona orok behar dugun janari duina izateko eskubidea azpimarratzen dute.



GABONETAKO POSTALAK

Mundukideren postalak bide erraz eta solidarioa dira Gabonak modu solidarioan zoriontzeko. Postalak aukera zabala formatu digitalean zein formatu fisikoan erabili ahal izateko diseinatuta dago, bidalketa mugarik gabe. Kooperatiba, denda, ikastetxe eta abarren eskura dauden postalak salmentari esker, Mundukidek programetara bideratzen du bildutako dirua.



MUNDO XPLORA

Eroski Bidaien Bilboko MUNDO EXPLORA gune tematikoa topagune bihurtu zen berriz ere Ekuadorrera egindako bidaiaren 3. edizioan parte hartu zuten gazteentzat eta Andeetako herrialdean bitzako esperientzia ezagutu nahi zuten pertsonentzat. Aurkezpena azaroaren 24an izan zen. Aste horretan zehar, argazki erakusketa batek zehatz-mehatz azaldu zuen bizi izandako esperientzia.



BADA BESTE MUNDU BAT

Mundukide bigarren aldiz jarraian ibili da Ekuadorren "Bada Beste Mundu Bat" esperientzia trukearen 3. edizioa antolatzen eta laguntzen. Bertan, 11 euskal gaztek eta 3 ekuadortarrek beraien bizi baliabideak eta lurraldeak erazketa jardueren aurrean babestu nahian dabilzan Andeetako eta Amazoniako biztanleen ikuspegia ezagutu dute. Esperientzia horri esker, euskal gazteek zalantzan jar dezakete beren erosotasun posizioa eta munduko errealitateen jatorria.

Interkooperazio sistemaren bidez, Arrasateko Esperientzia Kooperatiboa osatzen duten zenbait eragileekin partehartzea buftzatzen du, lan munduan hegoaldeko herrialdeekiko elkartasuna sustatuz.



VII. LASTERKETA SOLIDARIOA

Urriaren 16an, igandearekin, Elikaduraren Munduko Egunarekin bat eginez eta Pobreziaren aurkako Nazioarteko Astearen barruan, KOOPE-RATIBA ARTEKO VII. LASTERKETA SOLIDARIOA egin zen, Fundazioak Afrikan eta Hego Amerikan ezarrita dauzkan programei laguntzeko. Kooperatiba desberdinetako 300 lagunek eta 30 taldek baino gehiagok parte hartu zuten, eta denek ere Urkuluko urtegiaren inguru zoragarriaz eta ekitaldian parte hartu zuten pertsona ugariaren konpainiaz gozatu ahal izan zuten. Lehen aldiz, Mundukidek Athlon, Fagor Electronica eta KREAN kooperatiben laguntza izan zuen ekitaldia antolatzeko.




UGANDAN STICKS ETA ABA TAANO

Afrikako dantzak eta musika protagonista izan dira Harreman GKEarekin Arrasaten antolatutako bi kontzertu solidarioetan. Lehenengo ekitaldi kulturala uztailearen 20an izan zen Monterongo anfiteatroan. Bertan, Ugandan Sticks talde izarrarekin batera TTakun eta Jaiki txalparta eta dantza taldeek parte hartu zuten. Azaroan, eta 4 urteren ondoren, Ugandako Gospel taldeak Amaia antzokia bisitatu zuen berriro, AGAarekin batera, eta berriro hunkitu zituzten bertaratutako 700 lagunak. Bildutako dirua Mozambique iparraldeko lankidetzeta programara bideratu da, non 20 urte baino gehiago daramagun lanean.



KARBONO AZTARNAREN NEURTRALIZAZIOA


Ingurumenarekiko dugun konpromisoa kontuan hartuta, Mundukideren jardueraren ondoriozko emisioen karbono aztarna neurtu dugu, IHOBek eskaintzen duen programa erabiliz. Egoitzako eta abian ditugun bost programetako isurketak 350 tona CO₂ izan dira guztira. Herrialde askotan egindako lanaren ondorioz, aireko bidaiek sortzen dituzten emisioen bolumena oso nabarmena izan da. Epe laburrean, emisioak ahalik eta gehien murriztea eta igorritako emisioak modu eraginkorrean konpentsatzea da Mundukideren helburua.



Datu ekonomikoak




DIRU SARRERAK	2.714.064 €	% 100
KOOPERATIBAK	855.641 €	% 32
ERAKUNDE PUBLIKOEN DIRULAGUNTZAK	1.416.208 €	% 52
BESTELAKO DIRULAGUNTZAK	127.231 €	% 5
GGKEak	53.368 €	% 2
PARTIKULARRAK	94.418 €	% 3
BESTELAKOAK	167.197 €	% 6
GASTUAK	-2.714.064 €	% 100
INTERKOOPERAZIO GASTUAK	-2.427.268 €	% 89
INTERKOOPERAZIOA MOZAMBIKE	-659.188 €	% 24
INTERKOOPERAZIOA BRASIL	-925.158 €	% 34
INTERKOOPERAZIOA KOLONBIA	-271.078 €	% 10
INTERKOOPERAZIOA EKUADOR	-118.778 €	% 4
INTERKOOPERAZIOA ETIOPIA	-154.135 €	% 6
GIZARTE-ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA	-97.283 €	% 4
INGURUMENAREN IRAUNKORTASUNA	-8.911 €	% 0
INTERKOOPERAZIO OROKORRA	-63.320 €	% 2
HITZARTUTAKO PROGRAMAK	-129.418 €	% 5
GASTU OROKORRAK	-286.795 €	% 11
FONDO BILKETA	-53.394 €	% 2
SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA	-90.178 €	% 3
KUDEAKETA	-143.223 €	% 6
EMAITZA	0 €	



NAZIOARTEKO LANKIDETZA

- INTERKOOPERAZIOA MOZAMBIKE
- INTERKOOPERAZIOA BRASIL
- INTERKOOPERAZIOA KOLONBIA
- INTERKOOPERAZIOA EKUADOR
- INTERKOOPERAZIOA ETIOPIA
- GIZARTE-ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA
- INTERKOOPERAZIO OROKORRA



GASTUAK ATALKA

- NAZIOARTEKO LANKIDETZA
- SENTSIBILIZAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA
- FONDO BILKETA
- KUDEAKETA

Kontuak LKS Auditoresek auditatutakoak dira eta auditoriaren txostena <https://mundukide.org/eu/nor-gara/gardentasuna/> helbidean dago ikusgai, urteko kontuekin batera.